

"Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea."

(Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3. artikulua)

"Toda persona tiene derecho a la vida, a la libertad y a su seguridad personal."

(Artículo 3 de la Declaración Universal de Derechos Humanos)

ETArik EZ

ETA NO



COVITE

Apdo. 3.358

20080 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Estimados amigos:

Quiero, en primer lugar, agradecer su colaboración y su presencia en la reunión que mantuvimos recientemente en nuestra sede de Vitoria-Gasteiz, y las interesantes cuestiones que nos plantearon. Queremos que las opiniones de las víctimas ocupen un lugar destacado en el informe sobre la situación de las víctimas del terrorismo que estamos elaborando, ya que creemos que reflejar la voz de las víctimas es fundamental en el resultado final de este informe.

Como ya les hemos señalado, en este trabajo se pretende realizar un seguimiento del cumplimiento de los acuerdos parlamentarios suscritos en relación con las víctimas del terrorismo, de la normativa sobre esta materia, así como de los acuerdos y convenios que las administraciones han suscrito sobre esta cuestión.

Por otra parte, resulta fundamental la propia opinión de las víctimas, y más en concreto, su valoración de todos los instrumentos puestos en marcha para dar satisfacción a su situación y necesidades. Se pretende que estas opiniones de los afectados por la acción terrorista puedan recogerse de una manera sistemática. Por ello, nos sería de gran utilidad que pudiera responder a algunas de estas cuestiones:

A) En relación con la normativa en materia de víctimas:

Se han dictado distintas normas de rango legal y reglamentario que regulan las ayudas y asistencia de las víctimas de delitos de terrorismo.

- 1) Ley 13/1996, de 30 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y de orden social, y sus sucesivas modificaciones (art. 48 de la Ley 66/1997, de 30 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y del orden social; disposición cuadragésima segunda de la Ley 50/1998, de 30 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y del orden social; art. 43 de la Ley 24/2001, de 27 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y de orden social; y art. 48 de la Ley 53/2002, de 30 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y del orden social).

Así mismo, el Real Decreto 288/2003, de 7 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Ayudas y Resarcimientos a las Víctimas de Delitos de Terrorismo.



Nos gustaría conocer su opinión sobre esta normativa: si consideran que consigue una reparación material de las necesidades de las víctimas del terrorismo; si las ayudas y resarcimientos previstos son suficientes; si consideran que no contempla algunas ayudas necesarias y, en ese caso, cuáles serían esas ayudas, así como cualquier otra aportación que consideren oportuna sobre esta materia.

- 2) Ley 32/1999, de 8 de octubre, de solidaridad con las víctimas del terrorismo, y Real Decreto 1912/1999, de 17 de diciembre, por el que se aprueba el reglamento de ejecución de esta ley.

Igualmente nos gustaría conocer su valoración de esta ley y el reglamento que lo desarrolla, y si han apreciado alguna disfunción o carencia de quieran reseñar.

- 3) Real Decreto 851/1992, de 10 de julio, por el que se regulan determinadas pensiones extraordinarias causadas por actos de terrorismo.

Se pretende conocer también su valoración sobre esta norma y su aplicación.

- 4) Decreto 214/2002, de 24 de septiembre, por el que se regula el Programa de Ayudas a las Víctimas del Terrorismo.

Quisiéramos conocer su valoración de esa norma y de su aplicación, y las aportaciones que deseen realizar sobre esta cuestión.

- 5) Anteproyecto de Ley de Reconocimiento y Protección de las Víctimas del Terrorismo.

La Dirección de Víctimas ha presentado públicamente el Anteproyecto de Ley de Reconocimiento y Protección de las Víctimas del Terrorismo, que trata de abordar, de acuerdo con su exposición de motivos, *“las cuestiones estrictamente materiales o asistenciales”* y *“los principios generales que informan el conjunto de derechos de estas víctimas desde una perspectiva ética y política”*.

Nos gustaría conocer cuál es su opinión sobre este anteproyecto normativo.

- B) En relación con los acuerdos parlamentarios adoptados por el Parlamento Vasco sobre la situación de las víctimas.



- 1) Proposición no de ley relativa a los acuerdos alcanzados en la Comisión de Seguridad aprobados por el pleno del Parlamento Vasco de 28 de junio de 2002.
 - Qué valoración realizan de la proposición no de ley aprobada el 28 de junio de 2002.
 - Qué opinan sobre su cumplimiento.
- 2) Proposición no de ley sobre medidas para paliar la situación de las víctimas del terrorismo, aprobada por el pleno del Parlamento Vasco de 25 de junio de 2003.
 - Qué opinión les merecen los acuerdos adoptados en esta proposición no de ley.
 - Cuáles consideran que se han cumplido y cuáles no.
 - Qué valoraciones realizan de las iniciativas que se han puesto en marcha o en ejecución de este acuerdo parlamentario.
- 3) Dictamen formulado por la Comisión de Derechos Humanos y de Solicitudes Ciudadanas sobre el análisis de la situación y necesidades de las víctimas del terrorismo, aprobado por acuerdo del pleno del Parlamento Vasco los días 17 y 18 de febrero de 2005.
 - Qué opinión les merecen las medidas adoptadas en este acuerdo parlamentario.
 - Cuáles consideran que se han cumplido y cuáles no.

C) Actuaciones de las administraciones y de las instituciones en materia de terrorismo, acuerdos, planes y convenios.

Tanto algunas administraciones públicas como algunas instituciones han adoptado distintas medidas en materia de terrorismo a través de distintos instrumentos.

- 1) Creación de la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo.
 - Qué valoración realizan sobre la creación de la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo.
 - Qué valoración realizan sobre el funcionamiento de la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo en los años que lleva en marcha.



- 2) Manifiesto institucional en defensa del derecho a la vida, la libertad y la seguridad de todas las personas, suscrito en Gernika en febrero de 2002 por los responsables institucionales del Gobierno Vasco, diputaciones forales de Bizkaia y Gipuzkoa, y EUDEL.
 - Qué valoración realizan sobre este manifiesto.
- 3) Aprobación del Plan para la Defensa de los Derechos y Libertades y Contra la Violencia de Persecución de julio de 2003.
 - Qué valoración realizan de este plan.
- 4) Plan para la Paz y la Convivencia, aprobado por consejo del Gobierno Vasco el 2 de mayo de 2006, cuya eje segundo lleva por título “La solidaridad con las víctimas del terrorismo”.
 - Qué valoración realizan de este plan.
 - Qué opinan de los compromisos e iniciativas propuestas.
- 5) El Plan Vasco de Acción en Materia de Educación en Derechos Humanos y por la Paz (2007-2009), elaborado por la Dirección de Derechos Humanos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y aprobado por la Comisión Interdepartamental de Educación en Derechos Humanos y por la Paz el 1 de febrero de 2007.
 - Qué valoración realizan de este plan.
 - Entre otras previsiones contempla desarrollar una unidad didáctica específica “*dirigida a aunar la sensibilidad hacia las transgresiones más graves de los derechos humanos en nuestro país*”. Cómo valoran esta iniciativa.
- 6) Convenio-marco de colaboración permanente entre el ente público Euskal Irrati Telebista y el Departamento de Justicia sobre el tratamiento informativo de las víctimas del terrorismo.
 - Qué valoración realizan sobre este convenio-marco.

En todo caso y más allá del análisis de los distintos instrumentos relacionados con las víctimas, quisiéramos conocer la valoración que les merecen:



- 1) Las medidas dirigidas a la reparación material de las víctimas y cuáles son las cuestiones que deberían ser abordadas en caso de que nos las consideren suficientes.
- 2) Las medidas dirigidas a recuperar la memoria de las víctimas (monolitos, homenajes, declaraciones, publicaciones...).
- 3) Las actuaciones que tienen que ver con el funcionamiento de la Administración de Justicia.
- 4) Las actuaciones de los ayuntamientos a favor de las víctimas y, en su caso, medidas para cualquier acto que vaya contra la dignidad y la memoria de las víctimas (carteles, pintadas). También interesa conocer aquellos supuestos que se dan en nuestros pueblos y ciudades que consideren que resultan ofensivos para las propias víctimas del terrorismo.
- 5) Las actuaciones de la Administración educativa en relación con las víctimas del terrorismo.
- 6) Las actuaciones de la Administración sanitaria en relación con las víctimas del terrorismo.
- 7) Las intervenciones de los medios de comunicación públicos en relación con las víctimas del terrorismo.
- 8) Cualquier otra cuestión que consideren oportuno reseñar y estimen que sería conveniente hacer constar en el informe que se está elaborando.

Agradeciendo de antemano su segura colaboración, les ruego que nos den respuesta, a la mayor brevedad posible, a las cuestiones planteadas y quedamos a su disposición para cuantas aclaraciones consideren oportuno realizar.

Un afectuoso saludo.



Imgo Lamarca Iturbe
Ararteko

Vitoria-Gasteiz, 20 de julio de 2007

"Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea."


(Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 3. artikulua)

"Toda persona tiene derecho a la vida, a la libertad y a su seguridad personal."

(Artículo 3 de la Declaración Universal de Derechos Humanos)

ETArik EZ

ETA NO



COVITE

3.358 Posta kutxatila

20080 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Lagun estimatuak:

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen laguntzagatik eta oraintsu Gasteizko gure egoitzan egindako bilerara etortzeagatik, baita azaldu zenizkiguten gai interesgarriengatik ere. Terrorismoen biktimen egoeraz prestatzen ari garen txostenean biktimen iritziek toki nagusi bat hartzea nahi dugu, uste baitugu biktimen ahotsa islatzea funtsezkoa dela txosten horren azken emaitzan.

Lehenago aipatu dizuegunez, lan horretan aztertu nahi dugu zenbateraino bete diren terrorismoaren biktimak direla-eta sinaturiko legebiltzar erabakiak, gai horri buruzko araudia eta administrazioek kontu horren gainean izenpetu dituzten itun eta hitzarmenak.

Bestalde, funtsezkoa da biktimen iritzia bera eta, zehazkiago, beren egoerari eta beharrei erantzuteko abian jarritako tresna guztiez egiten duten balorazioa. Kaltetuen iritzi horiek sistematikoki biltzeko aukera izan nahi dugu. Horregatik, oso baliagarria izango litzaziguke zuk galdera hauetako batzuei erantzutea:

A) Biktimen gaineko araudiaz:

Terrorismo-delituen biktimentzako laguntzak eta arreta arautzen dituzten lege eta arau mailako hainbat arau ezarri dira.

- 1) Abenduaren 30eko 13/1996 Legea, zerga, administrazio eta gizarte arloko neurriei buruzkoa, eta lege horren ondorengo aldaketak (zerga, administrazio eta gizarte arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legearen 48. artikulua; zerga, administrazio eta gizarte arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legearen berrogeita bigarren xedapena; zerga, administrazio eta gizarte arloko neurriei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen 43. artikulua; eta zerga, administrazio eta gizarte arloko neurriei buruzko abenduaren 30eko 53/2002 Legearen 48. artikulua).

Era berean, martxoaren 7ko 288/2003 Errege Dekretua, Terrorismo Delituen Biktimei Laguntzak eta Ordainak emateko Araudia onartzen duena.

Araudi horretaz zein iritzi duzuen jakin nahiko genuke: ea, zuen ustez, terrorismoaren biktimen beharrak materialki konpontzea lortzen duen ala



ez; ea aurreikusitako laguntzak eta ordainak nahikoak diren; ea bertan falta diren beharrezkotzat jotzen dituzuen laguntza batzuk, eta, hala bada, zeintzuk izango liratekeen laguntza horiek, baita arlo horretan egokia iruditzen zaizuen beste edozein ekarpen ere.

- 2) Urriaren 8ko 32/1999 Legea, Terrorismoaren biktimekiko elkartasunari buruzkoa, eta abenduaren 17ko 1912/1999 Errege Dekretua, lege hori betearazteko araudia onartzen duena.

Halaber, lege hori eta garatzen duen araudia zer iruditzen zaizkizuen jakin nahiko genuke, eta ea disfuntzio edo akats azpimarragarririk antzeman duzuen.

- 3) Uztailaren 10eko 851/1992 Errege Dekretua, terrorismo ekintzek sortutako aparteko pentsioak arautzen dituena.

Arau horretaz eta bere aplikazioaz duzuen iritzia ere jakin nahi dugu.

- 4) Irailaren 24ko 214/2002 Dekretua. Horren bidez arautzen da Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programa.

Arau hori eta bere aplikazioa zer iruditzen zaizkizuen jakin nahiko genuke, baita gai horretaz egin nahi dituzuen ekarpenak ere.

- 5) Terrorismoaren biktimak aintzateste eta babesteko lege aurreproiektua.

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak terrorismoaren biktimak aintzateste eta babesteko lege aurreproiektua aurkeztu du jendaurrean. Zioen azalpenean dioenez, horren bidez *“soil-soilik alderdi materialak eta laguntzazkoak”* eta *“ikuspegi etiko eta politikotik biktima horien eskubideak jasotzen dituzten printzipio orokorrak”* aztertu nahi dira.

- B) Eusko Legebiltzarrak biktimen egoeraren gainean hartutako legebiltzar erabakiez.

- 1) Segurtasun Batzordean hartutako erabakiei buruzko legez besteko proposamena. Erabaki horiek Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak onartu zituen, 2002ko ekainaren 28an.



- Zer balorazio egiten duzue 2002ko ekainaren 28an onartu zen legez besteko proposamenaz.
 - Zer deritzozue hori betetzeari.
- 2) Terrorismoaren biktimen egoera arintzeko neurriei buruzko legez besteko proposamena, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak 2003ko ekainaren 25ean onartua.
- Zer iritzi duzue legez besteko proposamen horretan hartutako erabakiez.
 - Zuen aburuz, zein bete dira eta zein ez.
 - Zein balorazio egiten duzue abian jarri diren edo gauzatzen ari diren legebiltzar erabaki horretako ekimenez.
- 3) Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak terrorismoaren biktimen egoeraz eta beharrez egindako analisiaren gainean emandako irizpena, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak 2005eko otsailaren 17 eta 18an hartutako erabakiaren bidez onartua.
- Zer iruditzen zaizkizuen legebiltzar erabaki horretan hartutako neurriak.
 - Zuen aburuz, zein bete dira eta zein ez.
- C) Administrazioen eta erakundeen jarduerak terrorismo arloan, erabakiak, planak eta hitzarmenak.

Zenbait herri-administrazioek eta erakunde batzuek neurriak hartu dituzte terrorismo arloan, hainbat tresna erabiliz.

- 1) Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu da.
- Zer deritzozue Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu izanari.
 - Nola baloratzen duzue Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren jarduna martxan daramatzan urteetan.
- 2) Pertsona guztiek bizitzeko, askatasuna eta segurtasuna izateko duten eskubidea babesteko erakunde arteko manifestua, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien eta EUDELen arduradunek 2002ko otsailean Gernikan sinatua.
- Nola baloratzen duzue manifestu hori.



- 3) Jazarpen Indarkeriaren aurka, Eskubideak eta Askatasunak Defendatzeko Plana onartu zen, 2003ko uztailean.
 - Nola baloratzen duzue plan hori.
- 4) Bakea eta Bizikidetzaren Plana, Eusko Jaurlaritzaren kontseiluak 2006ko maiatzaren 2an onartua. Plan horren bigarren ardatzak izenburu hau du: “Terrorismoaren biktima guztiei elkartasuna erakustea”.
 - Nola baloratzen duzuen plan hori.
 - Zer iruditzen zaizkizuen proposatutako konpromisoak eta ekimenak.
- 5) Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzaren alorreko Euskal Ekintza Plana (2007-2009). Plan hori Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak prestatu zuen, eta Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzaren alorreko sail arteko Batzordeak onartu zuen, 2007ko otsailaren 1ean.
 - Nola baloratzen duzue plan hori.
 - Beste aurreikuspen batzuen artean, berariazko unitate didaktikoa garatzea proposatzen du, “*gure herrialdean giza eskubideen aurkako urratze larrienean sentsibilitatea handitzeko*”. Nola baloratzen duzue ekimen hori.
- 6) Euskal Irrati Telebista erakunde publiko eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila etengabe lankidetzan aritzeko hitzarmen-markoa, terrorismoaren biktimen informazio-tratamenduari buruzkoa.
 - Nola baloratzen duzue hitzarmen-marko hori.

Nolanahi ere, biktimekin zerikusia duten tresnen azterketa gaindituz, honako hauek nola baloratzen dituzuen jakin nahiko genuke:

- 1) Biktimei ordain materiala emateko neurriak; nahikoak iruditzen ez bazaizkizue, zein gai hartuko beharko liratekeen aintzat.
- 2) Biktimak gogoratzeko neurriak (monolitoak, omenaldiak, adierazpenak, argitalpenak...).
- 3) Justizia Administrazioaren jardunarekin zerikusia duten jarduerak.



- 4) Udalek biktimen alde egindako jarduerak eta, halakorik bada, biktimen duintasunaren eta oroitzapenaren kontrako edozein ekintzari (kartelak, pintadak) aurre egiteko neurriak. Orobat, zuen ustez terrorismoaren biktimentzat berentzat iraingarriak diren eta gure herri-hirietan gertatzen diren kasuak ezagutu nahi ditugu.
- 5) Hezkuntza-administrazioaren jarduerak, terrorismoaren biktimei dagokienez.
- 6) Osasun- administrazioaren jarduerak, terrorismoaren biktimei dagokienez.
- 7) Hedabide publikoen esku-hartzeak, terrorismoaren biktimei dagokienez.
- 8) Nabarmendu nahi duzuen eta, zuen iritziz, prestatzen ari den txostenean idatzita agertu beharko lukeen beste edozein gai.

Aldez aurretik eskertzen dizuet zuen laguntza, eta azaldutako gaiei lehenbailehen erantzuteko eskatzen dizuegu. Argibiderik behar baduzue, zuen esanetara gaude.

Agur bero bat.



Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2007ko uztailaren 20a